

IRAKASLEAK

• ZERBITZU EGINKIZUNAK

2020/21 ikasturterako deialdi batzuk argitaratu dira: osasun arrazoiengatik eta hautetsi karguagatik. **Eskaera aurkezteko epea:** martxoaren 20ra arte.

ZZEE horien deialdiak eta gainerakoak [Hezkuntzako web orrian](#) argitaratuko dira.

• IZAERA BEREZIKO LANPOSTUEN LEKUALDATZE LEHIAKETA.

Gaur argitartu da deialdia [Hezkuntzako web orrian](#).

Eskaera aurkezteko epea: martxoaren 12tik 31ra arte, biak barne.

Karrerako funtzionarioek parte hartu dezakete. Behin betiko lehen destinoa lortu ez duten langile funtzionarioek, EPEn hautatu zuten espezialitatean lortu beharko dute lanpostua, bere behin betiko lehen destino bezala. Ondorio horretarako, espezialitate horri dagozkion lanpostuak bakarrik eskatu ahal izango dituzte.

Bi deialditan parte hartu daiteke? Bietan lanpostua lortuz gero zer?

Deialdi honetan (bereziak) behin betiko destinoa lortu eta, aldi berean, autonomia erkidego mailako lekualdatze lehiaketan behin betiko destinoa lortu duten parte hartzaileek, **bost egun naturaleko epea izango dute**, deialdi honen behin betiko esleipena argitaratzen denetik; **destino baten edo bestearen artean aukera egiten dutela adierazteko**. Aukera egiten ez bada, zerbitzu aktiboan parte hartu den kidegoari dagokion lanpostuaz jabetu beharko da.



MANIFESTUARI ATXIKIMENDUA EMATEKO AZKEN EGUNAK !!!

www.plataformaeskolapublikoa.eus

www.steilas.eus